



Arartekoaren 2017R-58-16 Ebazpena, 2017ko martxoaren 7koa. Horren bidez, Urizaharreko Udalari gomendatzen dio bidaiariak turismo-ibilgailuan (taxi) garraiatzeko zerbitzu publikoko lizentzia baten baimendutako esku-aldaketak berrikusteko.

Aurrekariak

1. (...) andreak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, ez zegoelako ados Urizaharreko Udalaren jarduketarekin. Izan ere, udalak (...) jaunak bere arauz kontrako taxi-lizentzia semeari eskuz aldatzea baimendu zuen.

Pertsona horrek adierazi du Alkatetzaren abenduaren 15eko 121/2015 Ebazpenak taxi-lizentziaren titularrari ezarritako zehapen-prozedura baliogabetzeari, eteteari, indargabetzeari eta hasteari buruzko alegazioak ezetsi zituela osorik. Izan ere, egintza horretan ematen da baimena taxi-lizentzia eskuz aldatzeko. Kexagilearen ustez, titularrak bi taxi-lizentzia zituen; bata, Lagraneko Udalekoa eta, bestea, Urizaharreko udalerrian. Hala, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 8. artikulua bi lizentzia edukitzea debekatzen du.

Hortik, kexagilearen ustez, lizentziaren eskualdatze hori ez zen baimendu behar izan, udalak taxi-lizentzia baliogabetzeko eta indargabetzeko espedientea abiarazi behar izan zukeelako, baita zegokion zehapen-espedientea ere, zuzenbidearen aurkakoa baita pertsona fisiko batek bi taxi-lizentzia eta bidaiariak herriz kanpo garraiatzeko dagozkion baimenak izatea.

2. Urizaharreko Udalak Arartekoak egindako informazio-eskaerari erantzun zion eta zenbait dokumentu aurkeztu zituen: Zehazki, udalaren erantzunean hauxe adierazten zen:

“El expediente se ha tramitado con plenas garantías para los interesados, habiéndose solicitado en fecha 20 de octubre de 2015, a la Sección de Inspección y Autorizaciones del Servicio de Transportes de la Diputación Foral de Álava informe en relación con la solicitud de transmisión de la licencia de taxi formulada por su titular D. (...).

En fecha 24 de noviembre de 2015, se registra la entrada del informe emitido en fecha 17 de noviembre de 2015 por el Servicio de Transportes de la Diputación Foral de Álava, en el que se concluye que, una vez aportada la documentación correspondiente, no existiría inconveniente desde el punto de vista jurídico para autorizar la transmisión de la autorización. Respecto a la transmisión de la licencia y autorización, señala





que se cumple el presupuesto fijado por la norma para autorizar la transmisión de la licencia ya que la autorización es de 1 de agosto de 1992 y por tanto tiene una antigüedad superior a 10 años. Asimismo se indica que en el presente caso, a pesar de estar agotada la contingentación, no concurren los supuestos de extinción previstos en la normativa vigente (artículo 20, 21 y 22 del Decreto 243/2002, de 15 de octubre), en concreto los referidos a la renuncia de su titular, revocación, fallecimiento -salvo los supuestos de transmisibilidad del artículo 23- y anulación. Al tratarse de una transmisión de una licencia vigente a la entrada en vigor de la Orden (se concedió en 1992), el título habilitante continuaría vigente y no existiría desde el punto de vista de la contingentación inconveniente alguno para autorizar su transmisión, siempre que se cumplan los demás requisitos exigidos por la normativa vigente (Informe de 23 de julio de 2008 de la Directora de Transportes de Gobierno Vasco sobre la interpretación de la Orden de 11 de febrero de 2005).

Solicitado informe jurídico a la asesoría jurídica del Ayuntamiento, emite informe en fecha 14 de diciembre de 2015 que concluye que a la vista de la documentación obrante en el Ayuntamiento y de conformidad con el informe emitido por el Servicio de Transportes de la Diputación Foral de Álava en fecha 17 de noviembre de 2015, no se aprecia la concurrencia de anulación ni de revocación de la licencia de taxi concedida.

Mediante Resolución de Alcaldía nº 121/2015, de 15 de diciembre, notificada en fecha 18 de diciembre de 2015 a Doña (...), se desestima motivadamente su solicitud de anulación, suspensión, revocación e incoación de procedimiento sancionador frente al transmitente de la licencia de taxi, con ofrecimiento de recursos, sin que se hay presentado recurso administrativo ni conste a este Ayuntamiento la interposición de recurso contencioso-administrativo."

3. Geroago, Urizaharreko Udalak Arartekoarengana jo zuen, adierazteko Udal Idazkaritzak jakin izan zuela beste espediente batzuk zeudela eta horiek helaraztea egokia iruditzen zitzaiola. Hain zuzen ere, aipatutako espedienteetan hauxe jasotzen da:
 - a) (...) jaunak (...) andreari 1. taxi-lizentziaren titulartasuna eskuz aldatzeko baimena. 2004an.
 - b) (...) andreak (...) jaunari 1. taxi-lizentziaren titulartasuna eskuz aldatzeko baimena. 2005ean.
 - c) Udaleko 1. taxi-lizentziak ematen duen zerbitzuan laguntzeko baimena (...) andreari, 2013an.
4. Gomendio honen ondorioetarako, aurretik aipatu den bezala, Arartekoaren 2016ko abenduaren 22ko 2016R-57-16 Ebazpena ere hartu behar da kontuan. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatzen zaio turismo-ibilgailuan





(taxi) bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoko lizentzia bat eskuz aldatzeko baimena berrikusteko.

Gogoetak

1. Udalak emandako dokumentazioa eta Arartekoaren 2016ko abenduaren 22ko 2016R-57-16 Ebazpena aztertu ostean, laburpen gisa eta geroago zehaztasunez aztertzeko, honako gertakari hauek egiaztatu dira:
 - 1992ko abuztuaren 1ean baimendutako Urizaharreko 1. taxi-lizentzia titularraren emazteari eskuz aldatzeko 2004ko azaroaren 15eko eskaera, irabazpidezko ondasun gisa, Arabako Foru Aldundiak dagokion garraio-txartela igortze aldera.
 - Urizaharreko udaleko 1. taxi-lizentzia hasierako titularraren emazteari eskuz aldatzeko baimena, Alkatetzaren 2004ko azaroaren 16ko Ebazpenaren bidez. Ez da dokumentaziorik aurkezten betekizunak egiaztatzeari dagokionez; taxi-jarduera egiteko baimena duen pertsonaren gidabaimena baino ez da aurkezten. Ez da jaso Estatu mailako garraio-txartela baimendu zaionik emazteari; hala, Arabako Foru Aldundiak eman behar zuen baimena udaleko 1. taxi-lizentzian oinarrituz.
 - Lagraneko Udaleko 2004ko abenduaren 13ko taxi-lizentziaren baimena, Urizaharreko 1. lizentziaren aurreko titularraren alde. Hala, espedientean agertzen denaren arabera, dagokion Estatu mailako garraio-txartela eskuratu zuen Lagraneko lizentzian oinarrituz.
 - 2005eko urtarrilaren 18an Urizaharreko Udalarari zuzendutako eskaera, 1. taxi-lizentziaren titulartasuna bere senarrari eskuz aldatzeko, irabazpidezko ondasun gisa, Arabako Foru Aldundiak dagokion garraio-txartela igortze aldera.
 - Urizaharreko 1. taxi-lizentzia eskatzailearen senarrari eskuz aldatzeko baimena, 2005eko urtarrilaren 19ko ebazpenaren bidez. Ez da jaso Estatu mailako garraio-txartela baimendu zenik bere alde.
 - 1. Taxiko udal-lizentziaren titularraren emazteari zerbitzua ematen laguntzeko baimena, 2013ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez.
 - 2015eko azaroaren 24ko uko egitea; hala, 1. taxi-lizentziaren titularrak lizentzia bere semearen alde aldatzeko eskaerari uko egin zion.
 - 2015eko azaroaren 24an, Urizaharreko Udalak Arabako Foru Aldundiko Garraiobide Zerbitzuak 2015eko azaroaren 17an igorritako txostena jaso zuen. Bertan, ondorioztatzen da, behin dagokion informazioa aurkeztuta,





ez dagoela eragozpenik ikuspuntu juridikotik garraibide-baimenaren esku-aldaketa baimentzeko.

- 2015eko azaroaren 26an, 1. taxi-lizentziaren titularrak eskatu zuen izapideak burutzen jarraitzeko, adjudikaziodun den taxi-lizentziaren titulartasuna bere semearen alde aldatzeko.
 - 1. Taxiko udal-lizentzia "titularraren" semeari eskuz aldatzeko baimena, Alkatetzaren abenduaren 15eko 121/2015 Ebazpenaren bidez.
2. Kexan azaldutako kontua, aurreko gogoetan laburki adierazitako jarduketa desberdinen arabera, funtsean, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legean araututa dago, baita lege hori garatzeko araudia onetsi zuen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuan ere. Izan ere, horiek ondorengo ataletan aztertuko dira zehaztasunez.
 3. Urrizaharreko udaleko 1. taxi-lizentzia hasierako titularraren emazteari eskuz aldatzeko baimena, Alkatetzaren 2004ko azaroaren 16ko Ebazpenaren bidez.

Lege horren 8.2 artikulua ezartzen du lizentziak eta baimenak ezingo direla eskuz aldatu, jasotako salbuespenak izan ezik. Horien artean, nabarmentzekoa da e) atala; horretan adierazten da lizentziaren titularrak hamar urte baino gehiagoko antzintasuna izan beharko duela.

Kasu honetan, adierazi behar da, aipatutako legea eta araudia indarrean sartzean, Urizaharreko 1. taxi-lizentziaren titularra soilik lizentzia horren titularra zela eta 1992ko abuztuaren 1etik zuela lizentzia hori. Beraz, eskuz aldatzeko eskaera egin zenean, lizentziak hamar urte baino gehiagoko antzintasuna zuen. Beraz, kasu horretan, lizentzia eskuz aldatzea posiblea zen.

Hala eta guztiz ere, egindako eskuz aldatzeko eskaeran ez zen aipatzen eskuz aldatzeko kasu gisa lizentziaren antzintasuna, baizik eta "irabazpidezko sozietateaz gozatzeko" aukera gisa. Hala, kasu hori ez da Legearen 8.2 artikuluan aurreikusten. Bestalde, esku-aldaketa baimentzeko ebazpenean ez da esku-aldaketaren kasua zehazten, hau da, ez da zehazten lege aurreikusitako esku-aldaketa egiteko zein salbuespen hartu duen kontuan udalak taxi-lizentzia eskuz aldatzeko ezintasunaren salbuespen gisa.

Horrez gain, udalak emandako dokumentazioaren arabera, espedientean ez da egiaztatzen lizentzia eskuratzeko aurreikusitako administrazio-eskakizunak betetzen direnik (Araudiaren 6. artikulua), besteak beste: indarreko legeriak eskatutako betebeharrak betetzea, fiskalak, lanekoak, sozialak edo administratiboak; erabiltzaileei eragin lekizkiokeen kalteengatiko erantzukizun zibila estalita izatea, etab.





Azkenik, transmisio horren baimenak ez zuen bete araudian aurreikusitako prozedura. Hala, araudiko 12.1. artikulua honako hau ezartzen du:

“Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa emateko, oro har, ezinbestekoa izango da lehenengo bidaiariak herri barruan kotxez garraiatzeko udal-lizentzia eskuratzea, eta ondoren, herriz kanpoko garraiorako foru aldundiaren baimena lortzea. Herri barruko garraiorako lizentzia eta herriz kanpoko garraiorako baimena, biak batera eskatu ahal izango dira kasuan kasuko udalean.”

Erkidegoko araubideak hauxe gehitzen du 12.2 atalean:

“Eskaria jasotzen duen udalak, eskaria eta aurkeztutako agiriak herriz kanpoko garraiorako baimena eman behar duen foru aldundira bidaliko ditu. Foru aldundi horrek, kopuru mugatu bat ezarri bada eta artean kopuru hori bete ez bada, bi hilabeteko epea izango du baimena ukatu edo ematearen aldeko den adierazteko.”

Azkenik, Arautegiaren 12.4 artikulua ezartzen du udalak udal lizentziaren emakida edo ukapena jakinaraziko diola foru aldundi eskudunari. Hala badagokio, horrek hiri arteko eremurako baimena emango du.

Laburbilduz, hiriko zerbitzua ematea gaitzen duen lizentzia eskuratzeko eskatutako betekizunak egiaztatu ez izanaren inguruko alderdi horiez gain, ez da jaso udalak ezarritako administrazio-prozedura jarraitu zuenik; hala, hori jarraitu izan balu, bermatuko zukeen titularrak hiri arteko zerbitzu hori ematea gaitzen duen baimena segidan eta modu koordinatuan eskuratzea.

4. Urizaharreko 1. taxi-lizentzia eskatzailearen senarrari eskuz aldatzeko baimena, 2005eko urtarrilaren 19ko ebazpenaren bidez.

Legearen 8.1 artikulua hauxe ezartzen du: *“Lizentzia eta baimenek, bidaiariak kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa emateko, titular bakarra, gidari bakarra eta kotxe jakin bakarra baimenduko dute, eta, lizentzia edo baimena emango bada, hiru horiek araudiz ezarritako eran zehaztu beharko dira.”*

Baimen horretan ez da adierazten zein kasu hartu den kontuan esku-aldaketa baimentzeko; izan ere, lizentziak ez dira eskuz aldatu, legearen 8.2 artikuluan beren-beregi adierazten diren ez-ohiko kasuetan izan ezik. Horien artean, ez da *“irabazpidezko ondasunen gozamina”* agertzen. Gainera, kasu honetan, 2014ko azaroaren 16an baimendutako esku-aldaketarekin ez bezala, ezin zen hamar urte baino gehiagoko antzinasunaren kasua baliatu, esku-aldaketa hori baimendutako aurreko esku-aldaketa egin eta bi hilabete beranduago soilik egin zelako.





Aurrekoa gehituta, 8.1 artikuluan aurreikusitakoa larriki urratzen da. Izan ere, 1. taxi-lizentziaren titular berria une horretan beste taxi-lizentzia baten titularraren, hain zuzen ere, Lagraneko Udalak 2004ko abenduaren 13an emandako lizentzia batena.

Edonola ere, aurreko atalean adierazi den bezala, ez zen jarraitu legez aurreikusitako prozedura hiri arteko zerbitzua emateko lizentzia eta gero garraio-baimena izapidetzeko. Hori Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoa da. Hala, ez da jaso dagokion baimena eskatu zenik bidaiariak herriz kanpo turismo-ibilgailuan garraiatzeko jarduera egikaritzeko. Horretarako, edonola ere, aurretiazko udal-lizentzia zuela egiaztatu beharko zuen, baita herriz kanpoko zerbitzuak emateko gaitzen duen beste baimen baten titularraren ez zela ere. Ez zuen baldintza hori betetzen, Lagraneko Udaleko taxi-lizentziarekin lotutako garraio-baimena zuelako (Araudiaren 7. artikulua).

Gai horri dagokionez, Arartekoak bere iritzia helarazi ahal izan du Arabako Foru Aldundiari zuzendutako gomendioan, autonomia erkidegoko hiri arteko garraio-baimenaren ingurukoa. Hala, autonomia erkidegoko legeak eta araudiak arautzen dute baimena eta Estatu mailako garraio-baimena Estatuko araudiak arautzen du. Hala, foru aldundi horrek adierazi du hori aplikatu beharra dagoela, hiri arteko garraio zerbitzu hori emateko beharrezkoa den gaikuntza-titulua eskuratze aldera. Zehazki, Lurreko Garraio-bideak Antolatze Legearen Araudia onartu zuen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 118.2 artikulua haxe adierazten du: *"Las autorizaciones de transporte de viajeros en vehículos de turismo serán transmisibles cuando lo sean asimismo las licencias habilitantes para la realización de transporte urbano en esta clase de vehículos."*

Bestalde, araudi horren 123. artikulua haxe adierazten du:

"El otorgamiento de las autorizaciones habilitantes para la realización de transportes discrecionales interurbanos en vehículos de turismo estará condicionado a que el solicitante sea previamente titular de la licencia municipal que habilite para la prestación de la misma clase de servicios en el ámbito urbano.

....

La pérdida o retirada por cualquier causa legal de la licencia de transporte urbano dará lugar a la cancelación de la autorización habilitante para la realización de transporte interurbano, salvo que se den las circunstancias previstas en el artículo siguiente."

Estatuko araudiak pertsona berari Estatu mailako garraio-bide-txartel bat baino gehiago baimendu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko udal lizentzien arauketak udal lizentzia bat baino gehiago izatea eragozten du. Hala, ez dago kontraesanik gai horren inguruan eta gure lurraldeko autotaxi lizentzien titularrak garraio-bide-txartel bakar baten titularrak izan daitezke, aipatutako erkidegoko araudia indarrean sartu zenetik.





Laburbilduz, 2005eko urtarrilaren 19an 1. taxi-lizentzia eskuz aldatzeko emandako baimena ez dator bat zuzenbidearekin. Izan ere, ez ditu betetzen legez baimena eskuratzeko ezarritako betekizunak eta, zentzu berean, interesdunak ez ditu Estatu mailako herriz kanpoko garraibide-baimena eskuratzeko betekizunak. Nolanahi ere, interesdunak ez du baimen hori, interesdunak eta udalak izapidetu ez dutelako, aurkeztutako dokumentazioaren eta aipatutako aurrekarien arabera.

243/2002 Dekretuaren 21. artikulua taxi-lizentzien baliogabetzea arautzen du. Horrela, zera adierazi du:

“1.– Lizentzia edo baimena eman zuen organoak agiria kendu ahal izango dio titularrari, baldin eta:

a) Legean aipatu titulu gaitzaileak izateko aurreikusten diren eskakizunak Erregelamendu honen 6. eta 7. artikuluetan aurreikusi bezala betetzen ez baditu.”

Legearen 6. artikulua ezartzen du udal taxi-lizentzia bat eskuratzeko beharrezkoa dela egiaztatzea beste lizentzia baten titularrak ez izatea; kasu honetan, ez da baldintza hori betetzen. Izan ere, interesdunak 2004an Lagraneko Udalean eskuratutako indarreko lizentzia bat dauka. Era berean, hiri arteko zerbitzuak emateko gaitzen duen garraio-baimena dauka, Lagraneko udal-lizentzian oinarritutakoa. Beraz, ez du betetzen 7. artikuluan aurreikusitako eskakizun hori. Horregatik guztiagatik, ondoriozta daiteke taxi-lizentzia indargabetzea erabakitzeko baldintza guztiak ematen direla.

Horretarako, herri-administrazioek bere egintzak berrikus ditzakete Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. eta 48. artikuluek aurreikusitako kasuetan eta aipatutako Legearen 106. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozeduren arabera.

5. 1. Taxiko udal-lizentziaren titularraren emaztearentzako baimena zerbitzua ematen laguntzeko.

Elkarlana baimentzea ezartzen duen osoko bilkuraren erabakia Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legearen bigarren xedapen iragankorrarekin dago lotuta. Xedapen horrek hauex adierazten du:

“Lege hau indarrean sartzean gidaria eta titularrak bien artean zerbitzuak eskaintzen ari badira gaitasuna ematen duen titulu jakin bat dela bide, zerbitzuak horrela eskaintzen jarraitu ahal izango dute, pertsona horien arteko lan-lotura mantentzen den bitartean eta zerbitzua titulu horren babespean eskaintzen den bitartean.”



Legea 2000ko abuztuaren 2an sartu zen indarrean; orduetik aurrera, ezin zen baimendu zerbitzua soldatapeko gidari baten bidez ematea. Hala ere, aurretik baimendutako soldatapeko gidariek titularrarekin batera zerbitzua ematen jarraitzea ahalbidetzen zen. Zalantzarik gabe, hori ez da kasua, aurreko gogoetetan adierazi den bezala, 2004an titularraren emaztea lizentziaren titularra ere izan zelako. Hala, geroago, ezin izan zen baimendu soldatapeko gidari baten gaikuntza titularrarekin batera zerbitzua emateko.

Salbuespen gisa, araudiaren 37.2 artikulua honetarako baimena ematen du: *"...salbuespen gisa, titularra hilez gero, edo lanerako ezintasun edo baliaezintasun iragankorreko egoeraren bat edo zerbitzua titularrak berak ematea eragozten dion ustekabeko beste egoeraren bat gertatuz gero, soldatapeko gidari bat kontratatuta ustiatu ahal izango da lizentzia; baina lizentzia bakoitzak ezin izango du gidari bat baino gehiago eduki atxikita."*

Gainera, soldatapeko horiek, araudiaren 37.3 artikulua arabera, honako betekizun hauek bete beharko dituzte: *"Soldatapeko gidariak, jardunean hasi aurretik kasuan kasuko udalean egiaztatu beharko du lizentziaren titularrak kontratatu egin duela, eta Gizarte Segurantzaren lanaldi osorako langileen araubidean dagoela izena emanda, eskusibitatea bete behar ez badu behintzat. Gainera, Erregelamendu honen 34. eta 35. artikuluetan araututako gaitasun-agiria eta gidariaren baimena duela egiaztatu beharko du."*

Laburbilduz, eskuragarri dagoen informazioa ikusita, erabaki hau ez dator bat zuzenbidearekin ezta. Izan ere, pertsona hori ez dago legearen bigarren xedapen iragankorrek adierazitako kasuan. Horrez gain, ez da egiaztatu araudiak ezarritako ez-ohiko kasuren batean dagoenik.

6. Taxiko 1. udal-lizentzia "titularraren" semeari eskuz aldatzeko baimena, Alkatetzaren abenduaren 15eko 121/2015 Ebazpenaren bidez.

Aurreko ataletan aztertu egin den bezala, 1. taxi-lizentziaren titularrak ez zituen araudian aurreikusitako betekizunak betetzen, besteak beste, arauketa horren 6. eta 7. artikuluetan aurreikusitakoak, beste udal-lizentzia baten eta hiri arteko garraio-baimenaren titularra ez izateari dagokionez. Beraz, 2015ean onartutako lizentzia horren esku-aldaketa ez zen baimendu behar. Izan ere, une hartan taxi-lizentzia berrikusteko prozedura hasia izango zatekeen egokiena, aurreko gogoetan adierazitakoaren arabera.

Udalak aipatutako ebazpena emateko oinarritzat hartu zituen aurrekari guztien oinarria datu oker bat zen, hau da, Urizaharreko udal-lizentzia eta geroago emandako garraio-baimena indarrean zeudela 1992tik. Udalez kanpoko aholkularitza batek 2015eko abenduaren 14an igorritako txosten juridikoak eta udal-ebazpenak Arabako Foru Aldundiko Garraio-bide Zerbitzuak 2015eko azaroaren 17an igorritako txostena baliatzen dute. Txosten horretan ondorioztatzen da, behin dagokion dokumentazioa aurkeztuta, ez dagoela



eragozpenik ikuspegi juridikotik garraio-baimena eskuz aldatzeko, 1. taxi-lizentzia horretan oinarrituz.

Hala eta guztiz ere, aurreko gogoetan adierazitakoa nabarmenduz, bidezkoa da 2005ean emandako 1. taxi-lizentzia berrikustea, jarduera egikaritzeko gaitzen duten betekizunak ez betetzeagatik. Baina, horrez gain, berrikusi behar da titularraren semearen alde egindako lizentzia horren esku-aldaketa; hala, eskualdaketa hori 2015ean onetsi zen.

Nolanahi ere, udal lizentzien eta garraibide baimenen arteko konexioa dela-eta, gomendagarria izango litzateke bi administrazioen artean koordinazioa eta lankidetzaren egotea, legezketasunaren arabera emaitza lortzeko aipatutako administrazio-jarduketan berrikuspenean.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Dagozkion izapideak burutu ostean, 2005eko urtarrilaren 19ko ebazpenaren bidez emandako 1. taxi-lizentzia eskuz aldatzeko baimena berrikusteko.
2. Era berean, 2015eko abenduaren 15eko ebazpenaren bidez emandako 1. taxi-lizentzia eskuz aldatzeko baimena berrikusteko.

